

216. zenbakia

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

Nolako Azpeitia nahi duzu?

Agintaldi Plana eta
2024ko aurrekontuak



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47



Ale honetan zer?

Nolako Azpeitia nahi duzu?	3
Agintaldi plana.....	4
Aurrekontuak 2024.....	10
Etxebizita Bulegoa.....	12

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu **Azpeitian Zer?** aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria **943 15 71 85** (Alkatetza) telefonoan.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan dago Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuen erregistroa, errolda agiria atera, eskaera orokorrak zein lizentzia eskaerak edo kontsultak egiten dira bertan. Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etik 14:30era izaten da zabalik; ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara, etenik gabe, eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.



Nolako Azpeitia nahi duzu?

"Nolako herria nahi dugu azpeitiarrok etorkizunean?". Azpeitiko Udalaren ustez haxe da galdera horren erantzuna: **duinagoa, aktiboagoa, iraunkorragoa, bizigarriagoa eta errotuagoa.**

Bost ezaugarri horiek iparrorratz gisa hartuta, eta herritarrek zein asmo eta beharizan dituzten aztertu ondoren, **hurrengo lau urteotarako agintaldi plana landu du udalak.**

Arlo asko jorratzen ditu planak, baina badira batzuk erronka nagusitzat joko direnak, esate baterako, herritarren zaintza integrala bermatzea, edo trantsizio ekosozialean aurrerapausoak ematea, edo etxebizitzak eskuragarriago jartzea eta azpiegitura eta zerbitzu duinak eskaintzea.

**Azpeitia duinago,
aktiboago, iraunkorrago,
errotuago eta
bizigarriago baterako
Agintaldi Plana landu du
udalak.**

I. Duinagoa

Inor atzean utzi gabe, aurrera egingo duen herri bat nahi dugu. Zailtasun ekonomiko edo sozial gehien duten herritarren bidelagun izango gara, eta, horretarako, prestazio ekonomikoak eta kalitateko zerbitzu publikoak eskainiko ditugu. Herritarren zaintzarako behar diren egiturak eraikitzen jarraituko dugu.

ADINEKOAK

- **Egoitza berria Perdillegiko eremuan. Zaindua izateko eredu berritzailea** jarriko da bertan. Bizitza osorako etxebizitzak izango dira, egungo zaintza eredu baina egokiagoa baita adinekoentzat.
- Perdillegiko eraikin berri horretan **beste eguneko zentro bat ere zabalduko da**, bigarrena, orain baino plaza gehiago eskaintzeko.
- Mendekotasun egoeran dauden **adinekoak etxean zaintzeko zerbitzu sendoagoak**. Zaintzea behar duen pertsonaren beharrak eta nahiak oinarritzat hartuta, etxez etxeko laguntza bermatuko dugu, egunez eta gauez. Etxez etxeko arreta integrala emateko zerbitzu publikoa indartuko dugu.
- **Prebentzio zerbitzuak**. Mendekotasun eta desgaitasun egoerei aurre hartu nahi diegu, "eguneko unitatea" deituriko zerbitzua indartuz.
- Adinekoentzako **etxebizitza tutelatuak** bakarrik bizi nahi ez dutenentzat edo beren etxeetan oztopo arkitektonikoak dituztenentzat. Gizarte langileen laguntza izango dute han bizi direnek.
- **Adinekoen bakardadeari aurre egiteko neurriak**. Zaintza herritarren programa berria diseinatu eta martxan jarriko dugu. Komunitatea inplikatuko dugu herritarren zaintzan.

- **Zaintza lan duinagoak**. Zaintza duinak ezin dira lan baldintza prekarioen bidez eskaini. Profesionalak ez diren zaintzaileei ere beren premiak asetzeko baliabideak indartzen jarraituko dugu: laguntza psikologikoa, teknikoa, formakuntza eta atseden programak eskainiz.

HAURRAK ETA GAZTEAK

- **Prebentzio programa berriak**. Ikastetxeekin elkarlanean, programa berriak sortuko ditugu, eta lehendik daudenak gaurko beharretara egokitu (pantailak eta sare sozialak, tratu onetan oinarritutako harremanak, adikzioak).
- **Esku hartze goiztiarra**. Ikastetxe eta profesionalekin elkarlanean, elkarbizitza arazoak edo bestelako arazo sozialak izan ditzaketen haur eta nerabeen detekzioan oinarritutako programa indartuko dugu, goiz detektatzeak garrantzia handia duelako, ondoren, beharrezko arreta eta laguntza eskaintzeko.

LAGUNTZAK

- Erretiro, alarguntasun eta mendekotasun pentsio handiagoak. **Pentsio baxuak dituzten pertsonen hileroko gastuei aurre egiten laguntzeko prestazio ekonomikoak indartuko ditugu.**
- **Udal laguntzak, gizarte larrialdiko laguntzak osatzeko**. Laguntzen deialdia Eusko Jaurlaritzak egiten du, baina diru poltsa hori ez da iristen herritarren behar guztiak finantzatzera, eta udalak osatu egingo du.

ZAINTZA EMOZIONALA

- **Ongizate emozionala zaindu nahi dugu**. Ongizate emozionala deritzo ongi sentitzeko eta bizitzeko faktoreak zaintzeari: emozioak, estresa, loa, harremanak... Herri gisa dugun erronketako bat dela iruditzen zaigu.
- Zerbitzu berriak. **Indarkeria matxista jasan duten emakumeak artatzeko zerbitzuak indartuko ditugu** (aholkularitza juridikoa, zaintza sarea...).

2. Aktiboagoa



Herrian bertan bizitzeko eta lan egiteko aukera emango duen Azpeitia nahi dugu. Lur industrialak eskuratzen eta birgaitzen jarraituko dugu, hainbat enpresak adierazi baitute haien beharra. Sustapen ekonomikoko laguntzei eusteko konpromisoa ere hartu du udalak.

SUSTAPEN EKONOMIKOA

- **Larringo eremuaren garapena.** Enpresekin izandako hartu-emanetan, aipatu dute garatzen jarraitzeko lurzoru industrialak falta dela. Larringo eremuaren bereizgarrietako bat izango da beren beharren arabera eraiki ahal izango dutela enpresek.
- **Sustapen ekonomikorako laguntzak.** Aurten 400.000 euro bideratuko ditu udalak sustapen ekonomikorako laguntzetara, eta datozen urteetan ere laguntza horiei eusteko konpromisoa hartu du. Unean uneko beharretara egokituko ditu laguntzen ezaugarriak.

LEHEN SEKTOREA

- **Lur-banku publiko bat.** Lehen sektoreko ekintzailletza sustatzeko, Azpeitiko lurren diagnostikoa egingo dugu. Nekazaritzarako eta abeltzaintzarako egokiak diren lurak babestu behar ditugu, sektorean diharduten edo jardun nahi duten ekoizleen beharrei erantzuteko. Lurak saldu edo alokatzeko prest dauden lur-jabeen datu-base bat egitea izango da lehen pausoa.
- **Azoka plazaren dinamizazioa.** Azoka plazaren proiektuak eragin positiboa izan du lehen sektorean eta haren garapenean. Orain, herriko jangeletan bertako produktuen kontsumoa sustatzeko neurri berriak jarriko ditugu martxan.

LANA ETA IKASKETAK

- **Garraiorako bekak.** Herritik kanpo ikastera doazen gazteentzako garraiorako bekak jarriko ditugu.



3. Iraunkorragoa

Larrialdi ekologikoari aurre egiteko, aurrera pausoak egingo ditugu trantsizio ekosozialean.

Neurri sendoak hartuko ditugu energia kontsumoa murrizteko, karbono neutraltasunerantz joateko, autohornikuntzaren alde egiteko, elikadura burujabetza sustatzeko eta bioanizatasuna zaintzeko. Partaidetza-prozesu bat egingo dugu helburu horiek definitzeko.

ERRONKA EKOSOZIALA

- **Ingurumen mahaia.** Energia trantsizioa eta erronka ekosozialari nola aurre egin landu eta erabakiko duen mahaia sortuko dugu. Mahai horrek bideratuko du erronka ekosozialari begira herrian egingo dugun partaidetza-prozesua.
- **Bioaniztasuna zaintzeko, balio estrategikoa duten basoak erosi eta kudeatuko ditugu.** Basojabeen artean lanketa bat egingo dugu.
- **Hondakin gutxiago sortzeko, kontsumo arduratsua eta sentsibilizazioa bultzatzen jarraituko dugu.** Proiektu berriak bultzatuko ditugu, jasotako hondakinetatik material berrerabilgarriak sortzeko ekonomia zirkularrean oinarrituta. Lapatxen zigilatzearekin jarraituko dugu.

ENERGIA

- **Herrian sortutakoa, herrian kontsumitu.** Gero eta energia gehiago sortzen dugu, eta sortzen dugun energia ahalik eta neurririk handienera

herrian bertan kontsumitzen dela bermatu nahi dugu. Horretarako formula tekniko-juridiko berriak aztertuko ditugu.

- **Ekindar. Martxan jartzeaz gain, haren bueltan proiektu berriak sortuko ditugu.**
- **Energia eta Ingurumen Bulego berria.** Ekindarrekin elkarlanean, bulegoa irekiko dugu herritarrei informazioa emateko. Energiari nahiz ingurumenari lotutako gaiak landuko ditu bulego horrek.
- **Energia berriztagarrien sorkuntzarako instalazioak sustatzen jarraituko dugu,** eta, udal eraikinetatik harago, partikularren eraikinetan zein eraikin publikoetan (ikastetxeak...) eguzki plakak eta bestelako energiak (adibidez, aerotermia) erabiltzeko jauzia egingo dugu.
- **Energia biltegitratzea.** Gure instalazioetan sorturiko energia soberakina gordetzeko biltegitratze-sistema bat jarriko dugu martxan. Eraginkortasuna hobetzeko, unean uneko monitorizazioa sustatuko dugu.
- **Klima eta Energia Plana.** Udal eraikinetarako energia-plana egingo dugu, baina orain udalerri osora begirako plana egingo dugu.

MUGIKORTASUNA

- **Bizikletan eta oinez, erosoago.** Herri barruko bidegorri sarea hobetuko dugu, eta estalitako aparkalekuak egingo ditugu bizikletentzat.

4. Bizigarriagoa



Herritar guztientzat, **herrian bertan eroso eta seguru bizitzeko aukerak eskaintzen dituen Azpeitia nahi dugu**. Amueko gunea (Corrugados zena) herritarren erabilerarako berreskuratzea izango da erronka nagusietako bat.

HIRIGINTZA LANAK

- **Amueko eremua berreskuratu.**
Corrugadosen lantegia izandakoa eraitsi, eta eremu hori herritarren erabilerarako berreskuratuko dugu, ondoren, berdeguneak, oinezkoentzako pasealekuak, etxebizitzak eta herri erabilerarako ekipamenduak eraiki ahal izateko.
- **Obra txikien ikuspegi oso eta iraunkorra.**
Kale eta auzo integratzaileak nahi ditugu, denekin pentsatuta egindakoak. Horretarako, besteak beste, Urrestillako urbanizazioa gauzatuko dugu, hiru fasetan; Etxe Alai auzoko saneamendua hobetuko dugu; eta ur hornidura hobetzen jarraituko dugu. Auzoz auzo, baserri-bideak hobetzen jarraituko dugu, baserrietan bizi diren herritarren bizimodua errazteko.

ETXEBIZITZA

- **Etxe hutsak mobilizatzeko ahalegina.**
Etxebizitza politika aurrerakoi eta iraunkorra gauzatuko dugu. Etxebizitza oinarritzko eskubidea den arren, hainbat herritarrentzat oso zaila da

behar hori asetzea. Hutsik daudenak mobilizatu eta alokairura bideratzeko, gure esku dauden neurriak hartuko ditugu.

- **Babes publikoko etxeak.**
Babes publikoko etxeak egiten jarraituko dugu: Santutxon 28 babestutako etxebizitza egingo ditugu, Esklabetan alokairu sozialeko 48 etxebizitza eta Elizkalean alokairu sozialeko hamabi etxebizitza.
- **Erraztasunak gazteen emantzipaziorako.**
Ohiko etxebizitzaren alokairurako laguntzak, udal sustapeneko etxebizitzak, etxebizitza dotazionalak eta abar eskainiko ditugu gazteek emantzipatzeko aukera izan dezaten.
- **Trastelekuak Alde Zaharrean.**
Trasteleku komunitarioen beharrari buruzko lanketa egingo dugu Alde Zaharreko bizilagunekin, beraien ekarpen eta beharrak entzun, eta, horren arabera, lokal publiko edo pribatuak egokitze.



5. Errotuagoa

Herri errotuagoa, arloz arloko eragileekin eta norbanakoekin elkarlanean diharduena nahi dugu: herri feminista, parte-hartzailea, euskalduna, anitza, ingurumenarekin konprometitua eta kultur ondarea baloratu eta transmititzen duena. Horiexek dira irudikatzen dugun herriaren ezaugarriak, arloz arlo zeharkakotasunez landu nahi ditugunak.

KIROLA

- **Garmendipeko eremu eraberritua.** Hobekuntzak egingo ditugu Garmendipeko instalazioetan.
- **Kiroldegiko antolaketa egokitu.** Erabiltzaileen beharrak kontuan hartuta, aldaketak egingo ditugu, azpiegitura ahalik eta ondoen aprobetxatzeko.

- **Kalistenia parkea.** Herriko lehen kalistenia parkea egingo dugu Loiolarako bidean.

- **Padel eta tenis pista estaliak.** Eguraldi txarrarekin ere jokatzeko aukera egon dadin, estali egingo ditugu pistak.

Herri feminista, parte-hartzailea, euskalduna, anitza, ingurumenarekin konprometitua eta kultur ondareari balioa eman eta transmititzen duena nahi dugu

KULTURA

- Urtero, udalaren **kultur plangintza herriko kultur taldeekin batera aztertu eta eguneratuko dugu**, horretarako, behar diren baliabideak jarritz.
- **Elkarlana.** Kultura arloan, bidelagun dugu Kulturaz kooperatiba. Harekin dugun elkarlana sendotu eta indartzea izango da gure helburu garrantzitsuenetako bat.

EUSKARA

- **Ueman parte hartu.** Azpeitia UEMAKo parte da, eta mankomunitatetik datozen gaiak eta irizpideak aztertu, landu eta gauzatuko ditugu.
- **Kulturartekotasuna landu.** HUEZ Irekin, ikastetxeekin eta herri eragileekin batera, Euskara eta Kulturartekotasuna programa lantzen jarraituko dugu.
- **Euskaltegiak** ikastetxeekin aurrera daramatzan **ikastaro eta programak aztertu eta finduko ditugu** (Etorkizun, harrera plana...).

HERRI HEZITZAILEA

- **Haurren autonomia.** Herri hezitzailea gara, eta haurren autonomia bultzatuko dugu.
- **Aniztasun funtzionala.** Aniztasun funtzionala duten haur eta gazteekin sentsibilizazio-bideak ireki eta landuko ditugu herriko ikastetxeetako ikasleekin. Desgaitasunetan arreta jarri eta guztiok ahalik eta modu autonomoenean bizitzeko erraztasunak jarriko ditugu: irisgarritasuna, zeinuen hizkuntza, piktogramen erabilera...
- **Festa inklusiboak.** Orduetegi eta neurri bereziak jarriko ditugu behar bereziak dituzten hurrek ilaratan zain egon beharrik izan ez dezaten (puzgarrietan, barraketan...).

- **Herriko parkeak berritzen jarraituko dugu.**

PAREKIDETASUNA

- **Indarkeria matxistari aurre egiten dion herria** izateko, Azpeitiko eredia definituko dugu.
- **LGTBI+ kolektiboa.** Azpeitiako LGTBI+ errealitateen inguruko diagnostikoa eta ekintza plana osatuko ditugu.
- **Aholkularitza zerbitzuak indartuko ditugu.** Lardaxka sexu, genero eta bikote aholkularitza zerbitzu berritua indartuko dugu eta Emakumeen Txokoak ere ordutegi zabalagoa izango du.
- **Berdintasun politiken deszentralizazioa.** Berdintasun politikak eta dinamikak, Emakume Txokoan garatzeaz gain, udaleko beste sailak eta herriko beste txokoetara eramango ditugu.
- **Berdintasun plana.** Azpeitiko Udaleko I. Berdintasun plana egingo dugu.
- **Matazak proiektuak.** Azpeitiko emakumeen oroimen historikoa herriratzten jarraituko dugu.
- **Emakumeen saretzea.** Azpeitiko emakumeen ahalduntze kolektiboa eta saretzea bultzatuko dugu.

AZPEITIAK BERRIAK

- **Harrera plana.** Herrira etortzen diren familiei eta bereziki hurrei, gure hizkuntza, kultura, aisialdia eta herri mailako eragileen arteko zubi lanak egingo dizkien plan bat diseinatu eta martxan jarriko dugu.

FESTAK

- **Jaiak, denentzat.** Erasoarik gabeko jaien inguruko lanketa integrala egingo dugu.



Lehen urratsa, aurtengo aurrekontuak

Aurtengo aurrekontuak dira, Azpeitiko Udalarentzat, datozen lau urteetan egin nahi duen bideko lehen mugarrria. Iazko abenduak ohiko udalbatzarrean onartu ziren; hala, 2024. urteari 24,2 milioi euroko aurrekontuarekin ekin dio udalak. **“Bai edukietan, bai egiteko moduan, gure izaera erakusten dute aurrekontuek”**, esan zuen Nagore Alkorta alkateak aurkezpenean.

Gizarte Zerbitzuen Sailak izan du igoerarik handiena: %14koa. Kontuan hartzekoa da iaz ere %15eko igoera izan zuela sail horrek. Gizartea zahartzen ari da, eta zaintza beharrak areagotuz

doaz. Besteak beste, eguneko, gaueko nahiz laguntza integralerako zerbitzua eskaintzen ditu udalak.

Bakardadea da adinekoren artean zabaltzen ari den arazoetako bat. Bakarrik bizi nahi ez duten herritarrei edo etxean oztopo arkitektonikoak dituzten adinekoei bideratuta, 12 etxe tutelatu egin berri ditu udalak, Elizkalean. Urte hasieran jarriko dira martxan. Alokairu erregimenekoak dira etxe horiek, eta han bizi direnek gizarte langile baten laguntza izango dute egunero.

Zaintzaren barruan, herritarren ongizate emozionala ere lehen lerrora ekartzeko premia ikusi da. Iaz, zerbitzu berritzaile bat jarri zen martxan: psikologo zerbitzua, 18 urtetik gorakoentzat. Harekin jarraitzeaz gain, nerabe zein gurasoentzako orientazio zerbitzu bat ere jarriko du martxan aurten udalak, Gaztelekuan. Psikologo batek gidatuko du hura ere, eta doakoa izango da.

TOKIKO EKONOMIAREN ETA TRANTSIZIO EKOLOGIKOAREN ALDE ERE LANEAN

Tokiko ekonomiaren garapena eta trantsizio ekosoziala ere lehentasunezko arloak dira udalarentzat. Horregatik, aurten ere 400.000 euro bideratuko ditu ekonomiaren sustapenerako laguntzetara, eta 414.000 euroko ekarpena egingo dio Iraurgi Berritzen ere. Lehen sektorean, azken urteotan erreferente bihurtu da Azoka Plaza, eta hura indartzen jarraituko du.

Trantsizio ekologikoari dagokionez, urrats sendoak eman dira herrian azken urteotan. Ekindar energia kooperatiba da adibiderik argiena, baina, horrez gainera, beste hainbat egitasmo daude martxan; esate baterako, udal eraikinetan eguzki plakak jartzen jarraituko du udalak.

Era berean, herritarrek ere bide horretan aurrera egin dezaten, laguntzak emango ditu. Iaz, arrakasta handia izan zuten irisgarritasuna eta eraginkortasun energetikoa hobetzeko dirulaguntzek, eta, aurten ere 200.000 euro bideratuko ditu laguntza horietara.

GUZTIONTZAKO AZPIEGITURAK ETA INBERTSIOAK:

Herritarrek kalitatezko zerbitzu publikoak izan ditzaten, zerbitzu orokorren aurrekontua ere iaz baino %11 handiagoa izango da. Kaleko garbiketa, kaleen mantenua, eraikin publikoen garbiketa, lorezaintza eta abar sartzen dira sail horretan. Udal langilariaren aurrekontuak ere %5,5eko igoera izan du, besteak beste, soldatak %2,5 igo zaizkielako langileei eta zerbitzu berriak emateko langile gehiago kontratatuko direlako.

ZENBAKIAK

- **Aurrekontua: 24,2 milioi**
- **Aurrekontu bateratua** (kirol patronatua, euskara patronatua eta Azpeitia Berritzen kontuan hartuta): **26,6 milioi**

HERRITARREN EKARPENEN OSATUTAKO AURREKONTUAK

Aurrekontuak osatu ahal izateko, udal langileen, udaleko batzordeen, herriko eragileen nahiz norbanakoen ekarpenak jaso ditu udalak. Dozenaka izan dira herriko hainbat txokotan egon diren postontzietan beren proposamenak sartu dituzten herritarrek, bai eta Internet bidez ekarpenak egin dituztenak ere.

Horrez gain, auzoz auzo urtero egin ohi dituen bilerak indartu egin ditu oraingoan udalak, eta herri kanpoaldeko auzoetan ez ezik, erdigunean ere egin ditu batzarrak. Bide horietatik guztietatik jasotako ekarpenak aztertu ditu udalak, eta aurrekontuetan jaso ditu egoki iritzitakoak.

Urtean zehar ekarpenak egin nahi dituzten herritarrek ere badituzte horretarako bideak. Besteak beste, azpeitia.eus/gardentasuna/iradokizunak-gardentasuna helbidera idatzi dezakete beren eskaerak edo proposamenak egiteko.



www.azpeitia.eus

Etxebizitza Bulegoa

Enparan Kalea 34

943 15 71 83 · aberritzen@azpeitia.eus

Ordutegia:

Udako ordutegia (maiatzetik urrira)

Astelehenetik ostiralera 8:00etatik 14:30era

Neguko ordutegia (urritik apirilera)

Astelehenetik ostiralera (ostegunetan salbu):

8:00-13:30 eta 14:30-17:30

Ostegunetan: 10:00-13:00 eta 15:00-19:00